

Ezpalak

GORKA BEREZIARTUA

Zuzeu.com albistari digitala sarean dago joan den astetik

GUGEU enpresa berriak Zuzeu.com albistari digitala jarri du martxan. "Internetzale euskaldunon albistaria" bezala definitzen du bere burua webgune honek. Aurkezpen orrian esaten denez irabazi asmorik gabeko proiektua da, blog moduko bat "nor bere aldetik ibili beharrean, elkarren ondoan hobeto gaudelakoan". Hala ere, Gugeu enpresa "diru iturri desberdinak bilatzen" saiaturiko dela dio, Zuzeu.com hobetzen eta garatzen joan dadin. Gugeu enpresaren atzean Hasier Etxeberria idazle eta kazetaria dago. Dirudienez, proiektu hau Sustaturekin elkarlanean egin nahi izan zuen, baina ezinezkoa izan zen.

Katalogo berria aurkeztu dute Arto Artian-eko musikariek

HIRUGARREN katalogoa aurkeztu zuten joan den ostiralean Arto Artian kolektiboko musikariek. Soinuarekin lan egiten duten artistek osatzen dute kolektiboa, eta musikan independentziaz aritzea dute helburu. Gora Japon, Billy Bao eta Xabi Erkiziaren lanak jaso ditu, besteak beste, bildumak.

Mikel Peruarenak *Ez obeditu inori* nobela argitaratu du Susa argitaletxearekin. XIX. mende bukaerako Donostian kokatu du trama: Sotero Mujika bertsolaria Baroja moldiztegiara joan, eta Émile okzitaniarra ezagutuko du, Parisko komuna ezagutu zuen errebolataria. Ereñotzuko idazlearen lehen nobela da. Aurretik *Eguraldiaz hizketan* (Elkar, 2003) eta *Edan ase arte* (Kutxa, 2006) poema liburuak argitaratuak zituen.

Euskadiko Orkestra Sinfonikoak haurrei eskaintzen dien Musika Familiar zikloaren laugarren eta azken kontzertua (*Ur handietako notak* ikuskizuna) apirilaren 25ean eskainiko du Kursaal-eko Auditoriumean. Ikuskizun horretan baleek eta izurdeek komunikatzeko erabiltzen duten lengoia entzun ahal izango da.

Manuel Rivasek 40 poemaz osatutako liburua argitaratu du Alfaguara argitaletxearekin. Galizieraz idatzitako poemak euskaraz, katalanez eta gaztelaniaz ere argitaratu ditu. Euskarara Jon Kortazarrek ekarri ditu poemak eta *Elurraren urtzea* du izenburu poemarioak. Liburuaz gain CDa ere argitaratu du Rivasek, berak errezitatutako zenbait poemekin.

● **Amaia Zubiriak** *Noticias de Gipuzkoan*: «Behin esan nuen kantatzea maitasuna egitea bezala zela. Eta nola sentitzen dut orgasmo bat 20 urte pasa ondoren? Mirari bat da. Egia da erlazioa gastatuta egon zitekeela, hotza eta distantzia sentitu ahal izango nituzke baina hori ez da gertatu. Eta gertatuko balitz musika utzi egingo nuke beste zer-bait egiteko. Eta kitto. Baina orain ez zait iruditzen hori inoiz gertatuko zaidanik».

● **Pello Lizarralderi** *elkarrizketa egin zion Beñat Sarasolak Hitz egiteko modu bat* blogean: «Pozik nago oso, eta, aldi berean, harrirituta. [Iragaitza] liburuak taxutzen hasi orduko konturatu nintzen soka inoiz baino gehiago tenkatu behar nuela, latzagoa izango zela. (...) Lehen lehenik zortea izan dut editoreekin. (...) Gero, bereziki, kazetariak aipatu behar ditut. Konturatu naiz haien artean ere badaudela literatura zaleak. Gogotsu eta liburua

irakurri ondoren etorri zaizkit gehienak».

● **Uxue Alberdik** *Sareinak blogean emakume bertsolariet*:

«Bide berriak jorratu behar dira, inporta zaizkigun gaiak plazaratu, konplejei eta beldurrei aurre egin, eroso sentitzen garen guneak sortu, emakumeon artean gehiago kanta-tu... Gure kodea zein den ezagutzeko elkarrekin kantatu behar dugu, esperimentatu, hanka sartu eta ikasi...».



Makalen etorbidea 24, Neguri (48992)
Tel.: 944 912 031 • Getxo, BIZKAIA
www.restaurantejolastoki.com



Abarak

G O R K A B E R E Z I A R T U A

Malenkonia bainuetxean

Zuriuneak. Argazkiak: Nagore Lozano. Musika: Argazki bat behelainoan. Webgunea: www.zuriuneak.tk.

Bainuetxe batean gerta daitezke gauza asko: asteburu lasai bat, amodio urduri bat, hilketa bat... Baina pasieran ikusten ditugun lekuak dira normalean: joan, egon, alde. Etxera bueltatzen zara, sosak eta estresak hustuta, eta bainuetxea hutsik gertatzen da, norbait, beharbada argazkilari bat, noiz hurbilduko.



Hurbildu da Nagore Lozano Zestoako bainuetxera, eta denbora gelditu du begiekin. Lekua bere bakardade biluzian erakusten duten hamabost


argazkirekin osatu du *Zuriuneak* bilduma. Zuri-bel-tzean egindako argazkiak dira denak, eta objektuak dira protagonista: erlauntzan bezala bizi diren bainuetxeko giltzak, jangela huts bat, XIX. mendeko izatearen itxura duen mahai bat, ate itxiak, kafe kikara bat, pianoa...

Horiei testuingurua ematen diete plano orokorra-goeak, artikulua hau ilustratzen duen argazkiak, adibidez. Zuria eta beltzarekin kontraste harrigarriak egin ditu Lozanok, erdibidekorik gabe, argazkilari piktorialistek egiten zituzten lanak gogora ekarriz.

Trudiei laguntzeko berriz, www.zuriuneak.tk webgunean Argazki bat behelainoan-en bi kanta entzun daitezke, propio erakusketa digital honetarako sortuak. Nota grabeak nabarmentzen dituen piano batek ematen die oinarria kanta biei, eta horien gainean doinu errepikakor bat sortzen da, argazkiak bestela irakurtzen laguntzen duena. Ez daukazu aitzakiarik, etxetik ikus dezakezu erakusketa: murgildu zaitze malenkoniaren bainuetxean.

Jaso astero ARGIA etxean

Abantaila ugari izateaz gain, Harpidedunen Guneko kide ere izango zara



Izen deiturak:

Helbidea: Posta kodea: Herria:

Herrialdea: Jaioteguna:

N.A./I.F.K.: Tel./Faxa: e-posta:

Ordainketa mota: Bankuz
 Taloiez
 Transferentziaz KOMUNIKAZIO BIZIAGOA S.A.L.ren kontura (ARGIA): 3035 0036 14 0360048647
 Bankuz ordaintzekoek betetzeko soilik

Banku edo aurrezki kutxa:

Titularra: N.A./I.F.K.:

Titularraren helbidea: Titularraren telefonoa:

Entitatea: _____ Sukurtsala: _____ K.D.: _____ Kontu zenbakia: _____

Data: Sinadura:

Harpidetza-orri hau zure datuekin bete eta helbide honetara bidali: **142 P.K. / 20160 Lasarte-Oria –Gipuzkoa–**

Aukeratu ongietorri oparia



“Kirolaz badakit”
mahai-jolasa



“888 txiste”
liburua



“Txoriak txori”
lamina



%25eko beherapena
ikasle bazara

Urtebeteko harpidetza:
2009ko prezioak

135 € Hego Euskal Herrian
165 € Ipar Euskal Herrian

argia